

Urrezko lau domina lortu dabez Europako Pelota Txapelketan Arratiako pelotariek

Amaia Aldaik, Mikel Aurrekoetxeak, Mikel Beldarrainek eta Lur Ziarrustak Euskal Selekzinoagaz jokatu eben txapelketea eta jokututako modalidade guztietan lortu ditue dominak, urrezko lau eta brontzeko hiru. Apirilaren 3tik 6ra jokatu zan Portugalen eta andren Euskal Selekzinoa lehena izan zan sailkapen orokorrean eta gizonena, bigarrena. **14. orrialdea**



Korrikan bizi izandakoa gogoan izateko argazkiak

Kilometro asko egin ebazan Korrikak Arratia eta Zeberion. Batzuk atera ziran aurreko zenbakian eta beste batzuk dakarguz oingo zenbakiko erdiko orrialdeetara, Arratian bizi izandakoa jasoteko. Ubidekoek Otxandion eta Nafarroan egingako kilometroetako argazkiak be ikusgai dagoz.

Dana euki eban alde Korrikak 23. edizino honetan gure eremutik pasatzerakoan: eguna, ordua, eguraldia... eta inoz baino jente gehiago batu zan euskarearen aldeko lasterketera. Hori dala-ta momentu gogoangarri asko bizi izan ziran eta horren lekuko dira argazkiok. **9., 10., 11., 12. eta 13. orrialdeak**



Laburbira zirkuituko filmak ikusgai



Urtero lez, euskerazko film laburrak ikusteko aukerea dakar Euskaltzaileen Topaguneak antolatutako Laburbirak. Diman, apirilaren 19an; Igoren, 26an; Areatzan, maiatzaren 3an eta Artean, maiatzaren 10ean, proiektuak dira *Dena asmatuta dago*, *Katalinaren zoria*, *Erro*, *Babesa*, *Mundu berri bat*, *Zirrara*, *Talkak* eta *Betizu buru* filmak. **8. orrialdea**

ARRATIA

Liburuaren Egunaren inguruan jarduera ugari antolatu ditue

Arratiako liburutegi, udal edota irakurle txokoeak, hainbat ekintza antolatu ditue apirilaren 23a Liburuaren Nazinoarteko Egunaren inguruan, irakurzaletasuna bultzatzeko: kanpainak, lehiaketak, liburu aurkezpenak eta ipuin eta poesia emonaldiak, berbarako. **6. orrialdea**

BETI KONPAINIAREKIN

Olaetxe OPTIKA ZENTRUA

2 audifonoa erosterakoan

%50

Beherapena 2. audifonoan

MAIATZAREN 31arte

Konektibitateadun modeloetan soilik

IGORRE

Kiñu Gaztetxeak hamargarren urteurrena ospatuko dau

Hile osoan zehar, lagun taldeak "olinpiadetan" lehiatuko dira eta tailerrak, kontzertuak eta hilaren 27an egun osoko jaia antolatu ditue Gazte Asanbladakoek urteurrena ospatuteko. Kontzertuei jagokienean, hilaren 18an, Hari's Rock School-eko ikasleek emonaldia eskainiko dabe eta Ezpalak, Katu, Itzek eta Ibis Templum taldeek, hilaren 27an joko dabe. **7. orrialdea**



IGORRE

Ondo aparketako kanpaina ipini dau martxan Udalak

Igorreko Udala, Ertzaintzagaz eta Udaltzaingoagaz lankidetzan, "Jarri bere tokian, ez bere lekuan" izeneko konzieniazino kanpaina ipini dau martxan, hainbat beharretarako gordetako bide publikoko espazioak errespetau behar dirala gogoratu arazoteko kotxe gidariei eta ondo aparketako garrantziaz konzienietako. Bigarren ilaran aparketea be, galarazota dagoala gogora arazoten deutse Udalak kotxedunei. izan be, Olatz Urkiza Igorreko alkatearen esanetan, "beharezkoa da espazio seguruak eta ibilteko modukoak sortzea, herriak ondo funtzionau dagian". **5. orrialdea**

Literatura txokoa

MANAOS

Alberto Vazquez-Figueroaren edozein liburu ekarri neikean lerro honeetara, baina lehengo hilean aspaldian irakurri neban *Manaos* liburua agertu jatan aurrean eta barriro irakurri neban. Eta ez dakit inoz egin dozen ariketa hori, baina liburu bat bigarrenez irakurtean beste begi batzuek irakurten dogula esan lei, hartuten dogun inpresinoa be desbardina izaten da-ta. Halantxe pasau jat niri liburu honegaz, eta aspaldian abentura liburutzat hartu nebana, sortu dogun munduaren kritika zorrotza egin jat oingoan.

Munduan zehar dagoan injustizia salatu izan dau beti Vazquez-Figueroak, eta liburu honetan kautxoaren inguruan sortu zan

negozioa salatuten dau. Dirua barra-barra darabilen edozein negozioren inguruan injustizia ernetuten da, eta zenbat eta negozio handiagoa, hainbat eta handiagoa da horren inguruko injustizia, eta gehienetan basakeria eta krudelkeria. Holantxe jazo zan kautxoaren industriagaz Amazoniaren inguruan, XIX. gizaldiaren amaieran.

Egileak maisutasunez eroan dau paperera narrazioa: protagonisten deskripzio zehatzak eta ezin hobeak, narrazioan gertatuten diran gorabeherak eritmo eta batzuetan tensino biziagaz idatzita, eta gizakion krudelkeria gordinkeria itzelagaz marraztuta. Krudelkeria gordin horretan daretarik dago, gizakiok gizakiak za-

paltzea eta esklabutzara eroatea, indigenakaz sarraskiak egitea, andrazkoak imajinatu leiteken modurik basatienean bortxatutea... Azken baten, gizakiok historiaren sasoi guztietan eta munduko bazter guztietan erakutsi dogun ankerkeriaren erakuslehioa da liburua; baina, aldi berean, injustiziaren aurrean irauli egiten dan jentea beti dago, askatasunagaitik burrukan egiten daben gizonetakoak eta andrazkoak. Horrexek emoten deutso zentzuna gure bizimoduari, itxaropena begi bistatik galdu barik burrukan egiten dauan jentea. Eta horixe da *Manaos* liburua, zapalduen iraultza zapaltzaileen poderearen aurka, abentura giroaz ondo batuta.

Irakurlea hasikeratik amaierara



Alberto Vazquez-Figueroa

Manaos

Ediciones G.P., 1975

256 orrialde

ondo harrapatuta eukiten daben liburuetakoa da, entretenigarria egingo jakuna, baina kritikoago eta konzienteago izaten lagunduko deuskuna be bai.

Rafa Ugalde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Apirilaren 15etik 21era

Rodríguez Martínez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 22tik 28ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 29tik maiatzaren 5era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarriotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.com

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era orduo.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorre. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkarte. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XLV). Kale berbakunea sustatu guran

GABARREA

-Hi, Mikel! Miliioi bat persona batu **behozak** Bilbon!
-Baina zer dala-ta?
-Ez **eistek** esan ez **dakikela** ezer!
-Athletic-ek kopea irabazi **jok**!
-Nik futbola **etxoat** segiduten... baina miliioi bat persona esan **dok**? Ointxe konturatu **nok**. Ondo entzun **joat**?
-Bai, ondo entzun **dok**. Emozinoak, pozak eta negarrak makinatxo bat izango **dozak**.
-Bueno ba, jentea pozik egoteko balio **bajok**, neu be pozik **nok**.

ERETXIA

Norena izan

Kontura ez datozen errazoiengaitik, atzen urteotan hiru herrialdetan bizi izan naz, hiru kontinentetan: Amerikan, Afrikan eta Europan, eta urte honeetan ondorio batera heldu naz: funzionetan ez dauan sistema bat asmatu dogu. Irudizko parentesi bat zabalduen dot hemen nire baieztapenak daukan etnozentrismo kargearen jakitun nazala esateko, eta parkamena eskatzen dot horregaitik. Nire defentsan esan behar dot saiatu nazala eta saiatzen nazala karga horretatik askatzen, baina onartu behar dot orpoei itsatsita daroaldala bidean, neure geriza izango balitz legez. Kasu honetan, ostera, abiapuntu moduan balio deusta.

Baina gatozan harira; esan dodan moduan, funzionetan ez dauan sistema bat asmatu dogu. Lurralde, irudizko marrakaz zatitzen dogu, idea honegatz: linearen alde batekoa gauza bat da, eta marraren bestekaldekoa, barriz, oso diferentea. Eta, gogor saiatzen gara desbardintasun horreek marketan. Izan be, gizakioi hori gustetan jaku: dana, ondo etiketautako kutxatan sailkatzea, sail eta azpiataletan banatzea, egituratzea... geu eta beste batzuk ondo etiketautako kutxatxoetan sartzea. Horixe dalako seguru sentiduteko eta inguratzen gaituan mundua, geure burua eta alkar ulertuteko daukagun modua. Honek ekarten deusta gogora, umetan, amaren aldeko aitita-amamaren herrira joaten nintzanean, jenteak norena nintzan galdetzen eustala; nitaz zer espero ahal zan jakiteko, nonon kokatu behar ninduen-eta.

Atzen urteotako nire bizimodu nomadak, benetan norena nazan hausnartuteko aukerea emon deusta, eta beti erantzun azkarrak eukitea espero dauan mundu honetako egoera barriei aurre egin bitartean, tentuz erantzuten deusat norena nazan itaun horreri. Oin, mugak lurretik zeharkatzen dodazanean, bizi nazan leku



MAITE MOLERO RODRIGUEZ

Ingeniaria eta nomada

zoroan aireko espazioa zarratuta dagoalako, inoz baino gehiago ohartzen naz lurralde kontzeptua zein mehe eta jariakor dan, eta pentsetan dot neu be zati askoz eginda nagoala.

Zezeila da, edozein egun, eta okerreko hankeagaz jaiki naz: nostalgia handia sentiduten dot. Zer egin? Lagun biri deitzea ebatzi dot. Eurekaz, barre egin dot, negar be bai... eta oin askoz lasaiago nago. Hortik aurrera ulertzen dot dana, eta hobeto ulertzen dot neure burua be. Zati askogaz eginda nago bai, baina batez be, nire lagunak dira osotuten nabari zatiak. Nire aingura eta flotagailua dira, eurak dira nire herrialdea bere muga mehe eta jariakorraz. Baten batek, gaur, norena nazan galdetu ezkerro, nire lagunena nazala esango neuke, eurak dira nire etiketa askodun kutxa eta.

Amaitzeko, eta Los Chunguitos (edo, gurago badozue, Manu Chao) parafraseaz, aukeratu behar badot hegaldia libre dan zero horren eta zure artean, ni lagunakaz geratzen naz alkarregaz hegan egiteko. Eskerrik asko nire lagun guztiei.

**Erredakzinoan itzulia*



LUMATUTEN



ZEFE ZIARRUSTA
ARTABE

Jose Antonio
Ardanza Garro

Ezer baino lehen doluminak etxekoei eta desbardintasunen gainetik aitortza eta errespetuzko begirunea Lehendakariari eta bere familia politikoiari.

Giza hartu-emonak eta berauek bideratzeko molde eta jarrerak gure memoria kolektiboaregi eta ardazten laguntzen deuskula begibistako dogu, bai maila personalean zein komunidade bateko partaide lez.

Gaurkoan, ikuspegi politikotik aztertu edo aitatu gura neukez hainbat pasarte eta une historiko memoria kolektiboaren mesedetan, herri-ranganako zintzotasun eta begirunezko atalaiatik.

Ardanza Jauna personalki ezetuteko aukerea 1986an izan neban, hain justu Ibilaldiko koordinatzaile lanak beteten nengoanean, bera Lehendakariatzara heldu baritan. Zirt Zart Eskola Euskaldun Pubiko Bat lemapean laguntza eske hurreratu ginan Ajuria Eneara, ikastolen Ibilaldia tarteko. Gauzak momentu-garaiko kontestuan aztertu behar dirala sa-

ri aitortzen dot, kontua da, harrera Ardanzak egin egin euskula, baina hitz potoloetatik harago ez ebalala Ibilaldia Jaurlaritzatik laguntzarik jaso.

Aurreko pasarte anekdotikoa alboratuta, Ardanza aniztasunaren, desbardinen arteko hartu-emonen gidari legez saldu deuskue. Nor izan zan Herri Batasuna politikoki baztertzeko erabakimena hartu ebana? Noski! Akordio pluralak gure herria menperatzen dabenakaz.

Eskubide unibersalen lemazain lez be saltzean deuskue, baina garbi esango dot orban baltz ugari dirala tartean. Ajuria Eneako Paktuaren haritik sektore politiko, pentsamentu politiko edo mobimentu sozial ugari zigor bidean jami ez ezik bideragaitz bilakatu arazoz. Edo kasuan kasu, eskubide unibersal baten urraketea bultzatu eta indarrean ipinteko lagunduz, dispersinoa kasu.

Maila personalean eredugarri jantzi deuskue. Dudarik ez kasu askotan hala izan danik, baina podereaz baliatzea interes personalak aurrera eroateko ez jat iruditzen leial jokatzea danik. Hor Urdaibaiko Biosfera Erreserban bere Kanalako etxearen inguruko eregitze kontraesanak.

Gogoan dot Guggenheim afera. Gauzak egin egin behar dira, beinkel, baina sekula ez kultura mobimentu oso bat urteetan amasa barik itxi eta interes finantzioak hobetsiz.

Bai, memoria kolektiboan Egin egunkariaren itxiera antidemokratikoaren inguruan esandakoak Ardanza Jauna, danok dogu higiene demokratikoaren beharra.

Partekatu dagigun memoria kolektiboaregi gure komunidadearen kohesino eta hobe beharrez.

ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO



2024an Igorreko Udalak ateratako egutegiko maiatzeko irudia. San Jose ikastetxea Lasarten.

BEGI TXINDORRA

EH Bizirik plataformeak aprilaren 13an deitutako lurraldea suntsitzen daben makroproiektuen kontrako manifestazinora, larogei taldetik gora atxikitu ziran; Makatzak, Basoa, Arteako Herriko Benta eta Eguzkiola Arratiakoak, tartean. Izan be, hainbat dira mendiak suntsitu eta lurraldea arriskuan ipinten daben makroproiektuak gurean: goi-tensinoko linea eta Mandoia eta Kastilloko parke eolikoak, esate baterako.

Euskal Herriko talde ekologistek "erakundeek, podere ekonomikoren menpe dagoan podere politikotik inponidu gura daben transizino klimatiko faltsua" kritikau eben Azpeitian eta oligarkia energetikoakaz apurtzea eskatu eben.

Beste modu bat posible dalako. Energia garbia eskuratu leikena biodibersidadea hil barik. Transizino energetiko justua ahalbidetzen dauana, eta ez enpresa energetiko handiek negozioa egin dagien.

Lurraren defenza biziraupenerako preminazkoa da. Berdeak zuri-gorriaren besteko atxikimentua lortuko baleu, behintzat...



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Inplanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Oñativilla
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbaita 101
R.P.S. 21/06

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Azkue Fundazioak lehiaketea antolatu dau TikTok sare sozialean

Erredakzioa

Ingurune digitalean gazteen artean, euskerearen erabilera bultzatzeko, 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat, Bziber Lehiaketea antolatu dau Azkue Fundazioak. Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren babesu dauka.

Maiatzaren 2ra arte, Lorea Intxausti aktoreak lau erronka proponiduko ditu, astein bat. Lehiaketea TikTok eta Instagramen jarraitu daiteke, eta erronka

partekatu ezker, @bziber_lehiaketa etiketa daiteke, zein bideoa modu pribaduan Azkue Fundaziora bialdu.

Irabazleak

Erronka bakotxeko irabazle bat egongo da, eta, beraz, zenbat eta erronka gehiagotan parte hartu, aukera gehiago saria jasoteko. Irabazleak maiatzaren 3an jakinarazoko ditue Bziber Lehiaketaren sare sozialetan eta webgunean, eta 75 euroko erosketa-txartela jasoko dabe, Fnac dendetan gastetako.



IGORRE

Ondo aparketako kanpaina ipini dau martxan Igorreko Udalak



Erredakzioa

Herritarrei hainbat beharretarako aparkalekuak errespetatzearen garrantzia gogora ekarteko, informazioa postontzietan banandu eta kaleetan ipini dau.

Igorreko Udala, Ertzaintzagaz eta Udaltzaingogaz lankidetzan,

"Jarri bere tokian, ez bere lekuan" izeneko konzientziar kanpaina dabil egiten, herritarrei gogora arazoteko beharrezkoa dala ibilgailuak aparketako hainbat beharretarako gordetako bide publikoko espazioak errespetatzea, "bide-segurtasuna eta bizikidetzaren egokia bermatu ahal izateko".

Hori dala-ta, Udalak triptiko bat postontziratatu dau udalerriko etxe guztietan, eta kartelak ipini ditu hainbat lekutan. Dibersidade funtzionala daukien personentzako ibilgailuentzat erreserbatutako espazioak, zama-lanak, oinezkoentzako pasabideak, pasabide-seinaleak, garraio publikoko geralekuak edo oinezkoentzako guneak errespetatu egin behar dirala ekarri dau gogora, eta galarazota dagoala bigarren ilaran aparketea. Hori guztia Zirkulazioneko Erregelamentu Orokorren (BOE) VIII. kapituluako 94. artikuluan jasota dago.

Olatz Urkiza alkatearen esanetan "jakin badakigu beharrezkoa dala espazio seguruak eta ibilteko modukoak sortzea, herriak ondo funtzionatu dagian, bizikidetzaren egokia izan dagian eta, orokorrean, udalerriri atsegina izan daigun. Bizilagunen bizitzak irisgarriagoak egiteko espazioak errespetatu behar doguz, baita herritarrei zerbitzu emoteko garraiolari edo merkatariak behar dituenak".

IGORRE

Ekologiaren gaineko berbaldia antolatu dau Caritasek Igorren

Laudate Deum. Ekologia integralari buruzko hitzaldia titulupean, Caritas Bizkaiak berbaldia antolatu dau hilaren 18rako, 18:00etan, Igorreko Kultur Etxean.



Erredakzioa

Hizlaria, Alicia Suso Mendaza Enplegu eta Ekonomia Solidarioaren arloko koordinatzailea izango da.

Caritas Bizkaiak, bere enple-

gu eta ekonomia solidarioaren arlotik, ekonomia sozial eta solidarioko ekintzak egiten ditu. Berbaldian, ekintza horreek, eta boluntarioek ekologia integraleko bidean daukien zereginak azal-

duko dauz Susok.

"Ekologia integrala"

Caritaseko enplegu eta ekonomia koordinatzailearen arabera, "ekologia integrala munduan bizitzeko daukagun modua, gure bizimoduak, lurreko baliabideak daukagun harremana eta, orokorrean, gizakia ikusteko eta bizitza bizitzeko daukagun modua eraldatuko dituan ikuspegi barri bat da. Caritasetik, persona ahulenak eta hauskorrenak oso gogoan izanda helduek deusagu horri, haren bizitzak hobetuteko eta jasangarriak izateko alternatibak sortu behar doguz-eta. Kontua ez da bakarrik sintomei aurre egitea, batez be kausei" emon behar jakiera erantzuna dino Susok. Ekologia integrala ideak eta pentsamoldea aldatzen ditu eta "personak onuraren gainetik lehenesten dituen ekimen multzo bat da".

IGORRE

Ume eta nerabeen osasun mentalean eskuko telefonoek daukien eraginaren gaineko berbaldia egongo da Igorren

Erredakzioa

Leire Erkoreka psikiatreak smartphonea eta nerabeen osasun mentalaren arteko erlazioaren inguruko ebidentzien gaineko berbaldia egingo dau hilaren 24an, 19:30ean, Igorreko Kultur Etxean eta Kurutzia ikastolako Guk 16 alkarteko gurasoak euren esperientziaren barri emongo dabe. Erkorekak, Galdakao-Usansolo Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuan egiten dau behar eta EHUn irakasle eta ikertzailea da. Jarduerak Altxa Burua Arratiak eta Arratiako Udalen Mankomunitateko Adikzioen Prebentzio Zerbitzuan antolatu dabe.

Altxa Burua ekimena, eskuko telefonoaren ume eta gazteentzako erabilerearen gainean hausnartutako guraso taldeak dira. Arratian be, adin txikioek smartphoneak modu desegokian erabiltzen dabela eretxita eta arduratuta, guraso talde bat batzean hasi zan urrie-

tan eta ordutik, Arratiako Mankomunitateko Adikzioen Prebentzio Komunitario Zerbitzuagaz batera lanean dagoz. Berrogeta hamar lagunetik gora batu dituen batzarrak egin dabez eta WhatsApp talde bat daukie; bertan, 71 kide dagoz. Altxa Burua Arratiak hainbat berbaldi eta tailer antolatu ditu. Gurasoen konpromiso dekalogo bat be prestatzen dabiz, maiatzaren 4an, Zeanurin sinatuteko. Ekitaldi horretan, batzarretan adostutako konpromiso-orri bat sinatuko dabe eta han, seme-alabei lehen smartphonea emoteko adina zehaztuko da.



LEMOA

Belaunaldien arteko eguna ospatuko dabe Lemoan

Erredakzioa

Apirilaren 29an Belaunaldien arteko Elkartasunaren eta Lankidetzaren Europako Eguna ospatzen da, eta, hori dala-ta, Lemoako Udalak eta hainbat alkartek eguna ospatuko hainbat ekimen antolatu ditue apirilaren 27an; jantzak, bazkaria eta erromeria, tartean. Lemoatx Jubilatuta eta Pentsiodunen alkartek, gaztetxeo asanbladeak eta Durundibarri Dantza Taldeak alkarlanean prestatu dabe egitaraua.

Bazkarirako txartelak, Jubiladuen Etxean eta Gaztetxean erosi daitezke hilaren 19ra arte.

Aprilak 27, zapatua

12:00etan, jantzak Durundi Barri jantza taldearen eskutik.

12:30ean, poteoa.

14:30ean, bazkaria eta bingoa.

18:00etan, txokolatea eta erromeria.



ARRATIA

Ekimen ugari egingo ditue Liburuaren Egunaren harira

Erredakzioa

Arratiako udal edota liburutegiak hainbat ekintza antolatu ditue apirilaren 23a Liburuaren Nazinoarteko Egunaren inguruan, irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz. Literatura Txokoetan, Miren Agur Meabe eta Eneko Bidegain idazleak egongo dira eta irakurteko kanpainak, ipuin kontalariak eta liburu aurkezpenak be ez dira faltauko.

Artea

Artean, Udalak, liburuak gaia hartuta I. Orri-markatzaile Lehiaketea antolatu dau eta Liburuaren Egunean egingo da sari banaketea, 19:00etan, Kultur Etxean. Lanak hilaren 17ra arte aurkeztu daitezke Arteko ludotekan.

Hilaren 26an, Irakurleen Txokoan, Eneko Bidegainen *Bichta Éder* liburua landuko dabe egileagaz. Hitzordua 19:00etan da, Kultur Etxean.

Bedia

Bediako liburutegiak, apirlean zehar, Ezin dozu galdu kanpaina abiatu dau, irakurleek irakurri eta gustau jakien liburu bat, beste irakurleei gomendatzeko. Horretarako, irakurle batek liburutegian mailegu bat egiten dauanean, fitxa bat emongo jako beteteko. Fitxan, liburuaren sinopsi laburra eta zergaitik "ezin dozun galdu" azalduko dau. Kanpaina amaitu ostean, gomendatutako liburuakaz eta gomendio fitxakaz erakusketea egingo da.

Liburuaren Egunaren bezperan, hilak 22, 17:30ean, Onditz Mendizabalen liburu-maleta ibiltariaren saioak Liburuaren Eguna hartuko dau ardatz. Urteak daroaz Bediako Liburutegiak umeen irakurzaletasuna bizten Mendizabalen eskutik; izan be, ipuinak eta istorioak, liburu artean murgilduta entzuten ditue umeek.

Aurreko ekintza umeentzat bazan, hurrengoa, apirilaren 24koa edadekoei zuzendutakoa da. Maite Gonzalezen *Joven y plena. Guía de 7 herramientas para recuperar la vitalidad* liburuaren aurkezpena eta idazleagaz solasaldia egongo da.

Hurrengo barikuan, hilak 26, 17:30ean, umei bideratutako poesia emonaldia egongo da, Amaia Egidazu eta Saroa Bikandiren *Poltsikorako poemak* izenpean.

Dima

Hilaren 19an, 10:00etan, Dorleta Kortazar ipuin kontalariak umeentzako saioa eskainiko dau Abaroan.

Igorre

Liburuaren Egunaren bezperan,

hilak 22, 18:00etan, Miren Agur Meabe egongo da bere atzen liburu, haur eta gazte literaturako *Itzulerak* irakurleakaz komentetan Igorreko Kultur Etxeko Literatura Txokoan. Sarrera libre da eta liburu egileagaz komentau gura dauan edonor joan daiteke, Literatura Txokoko partaidea izan ez arren.

Eta Udal Liburutegian Liburu Eguna ospatuteko, Ameli eta Xirrikituen jostunen ipuin kontaketea egongo da hilaren 24an. Saio bi egongo dira. Lehenengoa, 18:30ean, 4 urte arteko umeentzat izango da, eta bigarrena, 19:15ean, 5 urtetik gorako umeentzat.

Lemoa

Lemoa be, kanpaina egiten dabil apirlean, irakurzaletasuna sustatzeko; euskerazko liburuak irakurtera bultzatzeko, hain zuzen be. Irakurri euskaraz, biderkatu euskara da kanpainearen izena. Holan, apirilaren 2tik 23rako epean Lemoako Liburutegian euskerazko liburu bat hartzean dabenek aukerea izango dabe zozketa baten parte hartzeako. Euskerea konsumiduten jarraitzeko aukerea ahalbidetzen daben sariak zozketatuko dira: Kotxepin Lagun izateko harpidetza bi; Gaztezulo aldizkarirako harpidetza bi; Berria egunkaria babesteko Berialagun ekarpen bi; eta liburu elektronikoko bat.

Zeanuri

Zeanurin liburu aurkezpen bi eta erreztaldi musikatu prestatu dabez Liburuaren Eguna ospatuteko. Apirilaren 24an eta 25ean, 19:30ean Kultur Etxean izango dira liburu aurkezpenak. Lehenengoa Asisko Urmenetaren *Gora euskal herrientsak* kulturearen transmisioan aurrendari izandako andren gaineko saiakera grafikoa izango da. Hurrengo egunean, Gorka Molaren *La apostasia de las putas* eleberria aurkeztuko dabe.

Hilaren 26an, Unai Elorriagak eta Josu Aurrekoetxeak *Odola kantari. Euskal kantagintzaren tragepe-dia* izeneko ikuskizuna eskainiko dabe. Errezitaldi musikatu honek erakutsiko dau euskal kantagintzan asko kantau jakola heriotzeari. Heriotzeari, gerrearri, hilketei eta odolari, hain zuzen be. Eta ikusentzunezkoak sorpresa bat dakar: "oin arte anonimotzat hartu dogun bertso-sorta baten egilea deskubridu dogu" dinoe Elorriagak eta Aurrekoetxeak.

Unai Elorriagak 2002ko Espainiako Narratiba Saria jaso eban *SPrako tranbia* lanagaitik.

ARRATIA, ZEBERIO

The Beatles-en abestiak ardatz hartutako ikuskizuna eskainiko dabe Arratiako Musika Eskolako ikasleek

Erredakzioa

Apirilaren 27an, *Yellow Submarine* ipuin musikala eskainiko dabe Arratiako Musika Eskolako ikasleek Igorreko Lasarte Aretoan. Saio bi egongo dira; lehenengoa 17:00etan, eta bigarrena, 19:00etan.

Saio baktxean 120 ikasle inguruk hartuko dabe parte, Musika Eskolako 15 irakasle osatutako orkestra batek lagunduta. Ikasturte honetarako aukeratutako gaia The Beatles taldearen musika izan da eta, bere abesti ezagunenetako batzuetatik ibilbide bat prestatu dabe. The Beatles taldea, rock eta pop musikearen historian eragin handiena izan dauan taldeztat jotzen da.

Sarrerak Musika Eskolan

Ipuin musikatuan parte hartzean dabenen kopurua handia denez, eta kontzertura joateko familiei



lehentasuna emon gura jakinez, sarrera gehienak ikasleen artean bananduko dira. Ha-ta guzti be, aforoa bete arte egongo da sarrerarik eskuratzeko aukerea, eta horretarako Arratiako Musika Eskolako administrazioagaz ipini behar da kontaktuan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Partidu nagusi biek euren programea azaldu dabe hauteskunde kanpainan

Erredakzioa

Apirilaren 21ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak dira eta, inkesten arabera, inoz baino estuagoak izango dirala emoten dauan honetan, EAJ-PNV eta EH Bildu, Arratian be euren lehendakariari botoa emoteko errazoiak azaltzen saiatu dira hilaren 19an zarratuko dan hauteskunde kanpainan.

EAJ-PNV eskualdeko zahar, gazte eta Sahara herriagaz alkartasuna izan dira Arratian egindako kanpainearen ildo nagusiak. Izan be, hilaren 9an, zahartze aktibo eta pensioen gaineko berbaldia eskaini eben Jon Airtza eta Izco Cardenalek Dimako eskoletan eta hilaren 14an, Arratian bizi diran sahararrakaz batu ziran jeltzaleak Igorreko eskoletan. Espainiako Kongresuan diputadu dan Aitor Esteban izan zan hizlaria.

Gazteei euren politikak azalduzteko barriz, gazteakaz batuko dira Lemoako Elizondo Kultur Gunean, hilaren 17an, 19:00etan. Berbaldia Maialen Olabek egingo dau.

EH Bilduren kanpaina

Hizlari ugari egon dira EH Bilduren hauteskunde kanpainako ekitaldietan. Hilaren 12an, euren politikak azalduzteko Illart Gumiuzio, Urko Lopezek eta Pacis Garciak hartu eben berbea Igorren. Diman, Julen Arzuaga izan zan hizlaria hurrengo egunean.

Hilaren 14an, Artean kanpainearen inguruko informazioa eta ariketak egin ebezan.

Apirilaren 16an, Iker Casanovak jardun eban Zeanurin, Euskal Herriko erronken inguruan eta hilaren 18an, Areatzako Gudarien plazan izango da ekitaldia 18:30ean. Naiara Fernandezek hartuko dau berbea eta Osakidetza "zutik jartzeko proposamena eta etxebizitzaren politikak" azalduko ditu.



ARTEA

Maiatzean, lurraldearen inguruan hausnar egitera konbidatzen dau Arteako Herriko Bentak

Erredakzioa

Maiatza osoan zehar, astegoienero, Arteako Herriko Bentan berbaldiak, zinea, liburu aurkezpenak, kontzertuak, obra artistikoak, argazki erakusketak, solasaldiak, ibilaldiak eta beste hainbat ekintza egongo dira, lurraldeaz hausnartzeko. Holan, hilabetez, Artea lurraldearen inguruko hausnarketarako gune bihurtuko dau Herriko Bentak. Horretarako programa ugaria osatu dabe disziplina eta erakunde desbardinaren artean.

Solastalgia berbeak lurraldean edo inguru hurbilean gertatzen diran aldaketek bertan bizi diran personengan ondorez fisiko zein emozionalak sortzean dituala esan gura dau. "Etxetik urten barik etxean egoteko gogo daukanak badauki solastalgia zer dan. Ingu-rugazko loturea galtzeak, identidadean gabezia handiak ekarten dauz" azaldu eben antolatzaileek topaketak aurkezteko prentsurrekoan. "Lurraldeaz eta nekazal eremuaz asko egiten da berba gaur egun, besteak beste, krisi klimatiko eta ekologikoa dala-ta. Baina bertako kulturearen eta bizimoduaren kontrako eraso aspaldiko gauzea da. Horrek sortu deuskun minaz eta tristuraz jardungo dogu topaketa honeetan".

Arratiako bizilagunen bizipenak, sensazioak edo eretxiak be jaso gura dabez eta horretarako, argazki

lehiaketea ipini dabe martxan. "Asmoa arratiarren bizipen personal eta intimoenak biltzea da. Iraganeko zein gaurko argazkien bidez errelato komun bat josteko". Hortik abiatuta, gura dan etorkizuna irudikatu eta eztabaidatu ahalko dalakoan.

Herri jakintza eta Akademiakoa

Solastalgia topaketak, unibersidadean sortzean dan jakintzearen eta herri-jakintzearen arteko alkarriketea elikatuko daben topaketak be izatea gura dabe antolatzaileek, eta dibulgaziorako zein arlo akademikorako baliagarriak diran hausnarketak sortzea espero dabe. Euskal Herriko Unibertsitateko Ekopol eta Parte Hartuz ikerketa taldeen lankidetzeta be izango dabe topaketetan.



ARTEA

Bizikidetzaren diagnostikoa egingo dau Arteak

Erredakzioa

Arteako Udalak partaidetza prozesu bat abiatu dau herriko bizikidetzaren egoera aztertuteko. Prozesuak fase bi izango ditu: bata apirilaren eta bestea maiatzean.

Lehenengo fasean, aurrediagnostikoan, herritarrek galdetegiak erantzutea eta profil teknikokoak alkarriketea saioak egitea aurreikus-tan da. Bigarren fasean, maiatzean, diagnosian sakondu gura dau Udalak, herriko ume, nerabe, gazte, heldu eta edadekoak batuz.

Galdetegiak

Galdetegia online, <http://tinyurl.com/2uncusmp> estekan bete daiteke edo paperean. Paperezko inkesta etxetara bialduko da eta betetakoan, goizez udaletxean eta arrastiz ludotekan entregatu daiteke, apirilaren 19ra arte.

Inkestan parte hartzeako 15 urte edo gehiago euki behar dira.



IGORRE/LEMOA

Kiroldegietako beharginek greba egingo dabe apirlean eta maiatzean

Bizkaiko kiroldegietako beharginek, greba egun gehiago eta mobilizazioak iragarri dabez. Izan be, Bizkaiko Kirol Sektoreko Lan Hitzarmena 2022ko abenduaren 31n amaitu zan, eta harrezkeroztik, hitzarmen duin baten alde dagoz burrukan sektore honetako beharginak.



Erredakzioa

Negoiazioa lar luzatzen dabilela eretxita, mobilizazioak gogortzea ebatzi dabe. Holan, apirilaren 10etik 13ra eta 15etik 16ra

greban egon dira, eta maiatzaren 7tik 10era be deituta dago greba.

Oin arteko greben jarraipenak oso ontzat jotzen ditue sindikatuek. Izan be, ELA sindikatuaren arabera, 2.000 personak baino gehiagok egiten dabe behar Bizkaian sektore horretan eta beharginen %90ek baino gehiagok babestu eben greba zezeilean.

Aldarrikapenak

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen arabera, udalek gero eta gitxiago gastetan dabe kirolean eta enpresak gero eta indartsuago lehiatzen dira euren artean, azpikontratazioak eskuratzeko. Honeen ondorioz, kiroldegietako

beharginen lana gero eta prekari-zatuago dago.

Sindikatuon arabera, sektore honetan, kontratazioetan partzialtasuna oso handia da eta ia ez dago lanaldi osorik; soldatak txikiak dira erosteko ahalmena berreskuratzeko berme barik; lanaldiak zatiketaz izaten ditu eta lanleku aldaketak izaten ditue beharginek; etenbako prestutasuna eta ordutegi aldaketak, zapatu eta domeketan behar egiteagatik plus barik; kirolaren profesionalen lege barriak maila altuagoko kalifikazioak eskatzen ditu, lan-baldintzak hobetu barik eta klaseak prestatzeko plus urria daukie, klaseen artean atsedean hartzeako denpora barik.

IGORRE

Igorreko Kiñu Gaztetxeak bere X. urteurrena ospatuko dau

Gaztetxearen hamargarren urteurrena ospatuteko, olinpiadak, tailerrak eta kontzertuak antolatu ditue aprila osoan. Hilaren 27an, egun osoko egitaraua egongo da.



Erredakzioa

Aprila osoan zehar, 3 eta 5 persona bitarteko taldeak lehiatuko dira, Gaztetxeak astean-astean proposatutako ekintzetan. Lehenengo bideo bat egitea izan da. Probok puntuak emongo ditue eta irabazleek "Okerkerien otzara" izango dabe sarizat.

Klown tailerra hilaren 11n eta

lbil Bedi taldearen kontzertua 13an, izan dira lehenengo hamabostaldian egindako jarduerak. Kakorraz-beharren tailerra hilaren 17an izango da, bertan partaideek lehen pausak eta kakorraz teknika ikasiko dabe.

Hilaren 19an, barikuan, 18:30ean, Hari's Rock School-eko ikasleen emonaldia egongo da. Hurrengo egunean, Urban Festan, beste ekintza batzuen artean, Potekumeak graffiti taldeak mural bat margotuko dau. Domekan, hilak 21, 18:00etan, Kiñu Gaztetxearen X. urteurreneko merchandisinga, norberaren kabuz eta bakotxaren gustura egiteko tailerra egongo da.

Baina tailerrean egingo dan merchandising-az gainera, urteurreneko jarduera guztietan egongo da salgai atera daben materiala. "Mertxan ederra egin dogu: bisera, kamisetak eta sudaderak" azaldu deusie Kiñutik BEGITURI.

Hurrengo egunetan, asanbla-

dakide eta lagunek egindako kantu bat be aurkeztuko dabe.

Aprilaren 27an egun osoko jaia

Hilaren 27an egun osoko jaia antolatu dabe urteurrena ospatuteko. Egunari hasikerea, 10:10ean, alkarregaz gosaltzen emongo deusie Gaztetxeak. Gero, 11:10ean, hile osoan zehar egindako olinpiadei emongo deusie amaierea; 13:10ean, musikeagaz gozatuko dabe "marianito pinxadan" eta 15:10ean, bazkaria egongo da. Bazkarirako txartelak Igorreko Herriko Tabernan erosi daitezke 8 euroan, hilaren 25era arte.

Arrastian, 18:10erako manifestazioa dago deituta. Ostein, poteo musikatu egongo da Matxada taldeagaz.

Eta ospakizunari amaierea emoteko, kontzertuak egongo dira Kiñu Gaztetxean 21:10etik aurrera. Ezpalak, Katu, Itzek eta Ibis Templum taldeek joko dabe bertan.


LABURBIRA

Euskerazko film laburrak Dima, Igorre, Areatza eta Artean egongo dira ikusgai

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, zortzi euskerazko film labur egongo dira Laburbira zirkuituan. Jone Arriolaren *Dena asmatuta dago*, Guillermo Ordas-en *Katalinaren zoria*, Amaia Lejarretaren *Erro*, Ander Iruretagoienaren *Babesa*, Mikel Alvarezen *Mundu berri bat*, Ane Cuestaren *Zirrara*, Ilune Diaz eta Jordi Nueten *Talkak* eta Kim Maiteny Munoaren *Betizu buru* dira aurtengo edizioan ikusi ahal izango diran filmok.

Erredakzioa

Diman, apirilaren 19an, 19:30ean eskolako kamaran; Igorren, 26an, 20:00etan Lasarte Aretan; Areatzan, maiatzaren 3an udal-tereko areto nagusian eta Artean, maiatzaren 10ean, Kultur Etxean proiektuak dira. 2024ko Laburbira, 35 herritan egingo dau geldiunea bere XXI. edizio honetan.



Dena asmatuta dago

Hamalau minutuko film honen zuzendaria Jone Arriola Lobete da eta gidioia be berea da. Aktore lanak, Xanti Agirrezabalak eta Jon Ander Urrestik egiten dabez.

"Estetika zaharra eta arrosa daukan bainugela. Komunaren erdian bainuontzi bat dago, non gazte bi erlajatzen diran porro bat erreten daben bitartean. Alkartzea indarrean ipinten dan neurrian, elementuen jatorriari eta sorrerari buruzko filosofia egiten hasten dira, alkarrizketeak gai personalagoetara jotzen dauan arte" sinopsiaren arabera.

Katalinaren zoria

Guillermo Ordás Blancoren *Katalinaren zoria* 9 minutuko filma da.

"Gerra latz baten erdian biziraun nahian, bere kemen eta indar guztia baliatu beharko dau Katalinak onik aterateko..." dino sinopsiak.

Erro

Erro Amaia Lejarreta durangarrak zuzendutako film laburra da. Filmean hainbat gai jorratzen ditu zuzendariak; tartean "emakumea eta jainkosa". "Era organiko baten lan egin dogu, bizitzagaz batera. Eskaintza jaso nebanetik, banekian lan multidiziplinar bat egingo nebala. Eta argi neukan zein lantalde izan gura neban. Norbere buruagaz lan egitea polita da, baina baita be beste diziplina batzuetako jentteagaz lan egitea. Hori holan, *Erron* bodypainta eta Janire Etxaberen jantza bertikala buztartu doguz. Jon Mendizabalek bere kamareagaz grabau eta editau dau dana, eta Ines Osinagak ahotsa ipini deutso" azaldu eban zuzendariak Anbotori emondako alkarrizketan.

Babesa

Ander Iruretagoienaren 19 minutuko film honek egoera zailen dagoan gazte baten istorioa dakarku. "Aratz, egoera zailak bizi dituan gaztea da, sare sozial urria dauka, lan prekaridadea eta ama gaixo terminala, etenbako laguntza behar dauana. Egoera horrek ansiedadea eta egonezina sortzean deusaz eta familiaren arazoak konponduteko eta bizitza hobetuteko preminak dirua irabazi beharra handitzen deutso. Prostituzinoan ikusten dau Aratzek arazoak azkar konpontzeko bidea. Hor ezetuko dau Migel, eta harenganako sentiduko dauan erakarpenak gainditu egingo dau gainerako bezeroak daukan harremana. Horrek ustebako egoera batera eroango dau".

Mundu berri bat

Mikel Alvarezen film honek apokalipsiaren osteko mundua imajinetan dau. "Apokalipsi zombiari hogeitaz biziraun ostean, janari bilketatik etxera itzultzean, artaburu zuri baten hozkada jaso dau Loinazek. Bere buruaz beste egitetik hur dagoala, plagea amaitu dala jakiten dau. Sendagaia topau dabe eta etxean daukanagaz prestatu daike. Mundu barri bat dauka aurretik, edo ez?". Aktore lanetan, Miren Gojenolak, Ander Edok, Ainara Atorrasagastik, Imanol Aristik eta Gorka Estonbak dihardue.

Zirrara

Ane Cuestaren film honek nes-

kato bat bere gorputza deskubritzen hasten danekoa kontetan dau. Deskubrimentu horrek uste baino buruhauste handiagoak ekarriko deusaz neskatoari.

Talkak

Ilune Diazen eta Jordi Nueten *Talkak* filmak, krisian dagoan

bikote baten istorioa kontetan dau. Bikoteak, bere arazoak amen baten konponduko dituan ezusteko talkaterapia perfektua topauko dau jolas azoka baten.

Betizu buru

Kim Maiteny Munoak zuzendutako 16 minutuko filma da *Betizu*

buru. "Miren eta Manuren erlazioa ez doa ondo, eta baserri bat hartu dabe astegoiena pasau eta harremana konpontzen saiatzeko. Bortizkeriak bortizkeria dakar, eta bailarako kondairak dino zintzarri bat dala zapaltzaileek entzuten daben atzen hotsa..." sinopsiaren arabera.

23. KORRIKA

Korrikako kilometro gehiagotako argazkiak ikusgai

Aprileko aurreko zenbakian argitaratu ebazan BEGITUK hainbat eta hainbat argazki Korrikak gurean itxitako irudiakaz. Oingoan be ikusita kilometro askotako irudiak ez dirala atera, orriotara dakarguz. Ezin izan dira dan-danak argitaratu baina gehienak dagoz orriotan.



Zeberioeko EH Bildu, Zeberioeko Gazte Elkarte, Zeberioeko EAJ-PNV eta Zeberioeko eskolea eta Guraso Elkarte.

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoak, Arteako Herriko Benta eta Arteako EH Bildu.



Goian Albakoa Guraso Elkarte, Arratiako EAJ-PNV eta Areatzako Herri Eskolako Familia Elkarte.

Goian Areatzako EH Bildu, erdian Zeanuriko Udala eta behean Zeanuriko Laratzue Kultur Elkarte eta Zeanuriko EH Bildu.

Onakiso larri kezaketan

Gure

ikastetxeak


Luskalduna
kalidazeko
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre



Bediako Udala goian, Baserrigintza enpresea, Arantzazuko EH Bildu, Arantzazuko Udala eta Ilunbe enpresea.

BATZ goian, Dimako Udala, Abizarie, Indusi auzoa eta Olazabal auzoa.



Artaungo auzoa goian, Gazte Barri Dantza Taldea, Dimako eskolakoak, Txumuluxueta Kultur Elkarte eta Dimako EH Bildu.

Andraizea taldekoak goian, Arratia Institutua, Tranbia Txiki Guraso Elkarte, Basantz auzoa eta Igorreko EH Bildu.



Igorreko Esku Pelota Elkarteak, Arratia Motor Taldea, Lemoako EH Bildu, Zulaibar Lanbide Ikastegia, Lemoa, Lemoako Eskupilota Taldea eta Lemoako Harrobi taldea.

Lemoako eskolako kilometroa, Arratia Motor Taldea, Lemoako EH Bildu, Zulaibar Lanbide Ikastegia, Lemoako "Gure" Txirindulari Elkarteak eta Bediako EH Bildu eta Ubideko herritarrek Otxandion (2.215) eta Nafarroan (764) egindako kilometro biak.

TXIRRINDULARITZEA**Udaberrikopako txirrindularitza eskoletako lasterketa bat Igorren egingo da****Erredakzioa**

Aprilaren 28an, Bizkaiko txirrindularitza eskoletako ume eta gazteen lasterketak egongo dira Igorren 10:00etatik aurrera, Olabari

auzoan. Urtero lez, partaidetza handia espero da, 200 ume baino gehiago. Eurretatik 30 inguru Igo-reko AZE eskolakoak izango dira. Zazpi lasterketak osotuten dabe Udaberrikopa. Infantil mailakoek

(13-14 urte) puntuak pilatzen dabez lasterketa bakotxagaz sailkapenean aurrera egiteko, baina kategoria gazteagoetan ez dago sailkapenik. Igorreko lasterketa, Udaberrikopako laugarrena izango da: aurretik, Markina, Durango eta Sondikako karrerak dagoz; ostean, Berango, Karrantza eta Ermuan ibiliko dira ziklista gazteak.

Boluntario bila

Olabari auzoan jente asko batuko da egun horretan. "Umeen lasterketek beti erakarten dabe jente asko: gurasoak, nebarrebak, aitita-amamak, lagunak... Aurten be ez dogu gitxiago espe-



ro" dino Leire Aurrekoetxea AZEko presidentea. Eta dana ondo aterata daiten, laguntzaileak behar

dituela dino eta eskoletako gurasoen artean hasiko dirala laguntzaile bila azaldu dau.

PELOTEA**Arrakasta handia lortu dabe arratiarrek XI. Europako Pelota Txapelketan**

Amaia Aldai, Mikel Aurrekoetxea, Mikel Beldarrain eta Lur Ziarrusta Euskal Selekzioagaz aritu dira eta jokatutako modalidade guztietan lortu ditue dominak, urrezko lau eta brontzezko hiru.

Erredakzioa

Euskal Pelota Selekzioa Freixo de Espada à Cintan (Portugal) jokatutako XI. Europako Pelota Txapelketan aritu zan apirilaren 3tik 6ra. Hamabost pelotari batu ebezan Patricia Espinar eta Eneko Uribe entrenatzaileek eta

tartean, lau arratiar: Amaia Aldai, Mikel Aurrekoetxea, Mikel Beldarrain eta Lur Ziarrusta. Txapelketa arraskastatsua jokatutako dabe, izan be, andren selekzioa lehena izan da sailkapen orokorrean eta gizonezkoena, bigarrena.

Holan, Amaia Aldai parte izan duan andren selekzioa Joko

Internazionalen, Pelota portugaldarrean zein OneWall espezialidadeetan nagusitu dira, guztietan urrezko dominak irabazita. Honeek, ez dabe Llargues joko valentziarra jokatutako.

Gizonen selekzioak oster, Aurrekoetxea, Beldarrain eta Ziarrusta tartean, lau modalidadeak

jokatutako eta guztietan lortu ditue dominak. Holan, Pelota portugaldarrean lortu dau urrea eta Llargues, Joko Internazional eta OneWallean lortu ditue brontzezko dominak.

Podiuma

Andrazkoen Euskal Selekzioak

hiru espezialidadeak irabazi ditue beraz, hamabi puntu lortuta izan dira txapelkunak. Atzetik izan ditue Herbehereak (4 puntu) eta Valentzia (3 puntu). Gizonezkoetan Valentzia nagusitu da hamar puntugaz eta atzetik izan dira Euskal Selekzioa (7 puntu) eta Belgika (5 puntu).



Euskal Selekzioaren kideak.



24/25
DENBORALDIA
INSKRIPZIO
EPEA ZABALIK

INFORMAZIO GEHIAGO
688 777 117/94 631 57 04
cdarratia@cdarratia.com



Kontsultatu gure programa hemen:
mirengorrotxategi.eus

MIREN GORROTXATEGI
Elkarrekin Podemoseko lehendakariaga



AUKERATU **EZKERRA** **BOZKATU**
elkarrekin Podemos



MENDIA

Upo Galapan, Areatzako mendi lasterketearen bigarren edizinorako izen-emotea zabalik dago

Erredakzioa

Karpoko jaiak aprobeixatuz, Areatzako II. Mendi Lasterketea egingo da aurten Lamino Kirol Klubak eta Areatzako Udalak antolatuta. Maiatzaren 4an izango da. Lasterketeak 14 km eta 800 metroko desnibela dauka.

Mendi lasterketa herrikoia da "edozeinek egin ahal izateko modukoa, bai distantzia, bai desnibel aldetik" adierazozko ibilbide zirkularra dauka; Gudarien Plazaren inguruan izango ditu urtekera eta helmuga. Lasterkariak 09:30ean ekingo deusie karrereari eta, ibilbidearen erdi inguruan, 8. kilometroan, izango da horniketa puntua. Lasterketeari izena ematen deusian Upo mendiaren tontorra, 10. kilometroan zapalduko dabe.

Izen-emotea zabalik dago

<https://upogalapan.blogspot.com/> helbidean hilaren 28ra arte. Asegurua, dorsala eta horniketea, izen-emotearen zortzi euroko prezio barruan dagoz; bazkideek 6 euro ordaindu behar dabez.



TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garrok podiuma egin dau Espainiako Duatloi Paralinpiko Txapelketan

Erredakzioa

Apirilaren 7an jokatu zan Avilesen, Espainiako Duatloi Txapelketea. Igorrekoa, Paralinpikoa PTS2 kategorian lehiatu zan. Lehenengo duatloi txapelketea izan zan Garro txirrindulariarentzat eta hirugarren egin eban, Lanzaroteko Lionel Valentin Morales eta Eivissako Javier Vergararen atzetik, podiuma lortuz.

Hiru proba egin behar izan ebezan partaideek: 5 kilometro galapan, bizikletan 20 eta barriro be galapan beste 2,5 kilometro. Lasterketearen ibilbidea gogorra izan zala dino; izan be, hasi eta segiduan, 200 metroko igoera eukan ibilbideak eta gogorra egin jakon Garrori, eta atzean geratu zan. Oso ondo hasi ez bazan be, buelta emon eutsan bizikletea hartutakoan, hirugarren postura ailegauz "galdutakoa irabazi neban, aurrekoak harrapatu eta aurreratu be bai distantzia aterata". Gero, galapan egin beharreko atzenengo 2,5 km-etan, hirugarren

postua mantenidutea lortu eban. Hain lorpen ona ez ebalako espero aitortu deutso Garrok begituri eta sano pozik agertu da.

Ziklismoa eta triatloia

Bideko hainbat lasterketa ziklistatan parte hartzeako asmoa dauka Igorrekoa, Kopako probako bitan eta Espainiako Txapelketan, hain zuzen be. Urri lehenengoan, barriz, Espainiako triatloian neuruko da.



MENDIA

Maiatzaren 11n jokatuko dan Ubidestroi mendi lasterketarako izen-emotea zabalik

Erredakzioa

Ubidestroi mendi lasterketan parte hartzeako izena, www.kronoak.com webgunean emon daiteke maiatzaren 1era arte, edo 300 dorsalak amaitu arte.

Ubidestroi lasterketeak 28 kilometroko ibilbidea eta 2.000 metroko desnibela dauka. Gorbeiaiko kurutzean dauka bere punturik altuena. Ibilbidea, Harrikurutz (851 m), Oketa (1.018



m), Gorbeia (1.482 m), Aldamin (1.373 m), Arralde (945 m) eta Eneabe (782 m) mendi tontorretatik pasetan da. Hori egiteko gehienezko denporea 6 ordu dira.

Aurten bigarrenez, 17:00etan, Ubidestroitxo umeentzako lasterketea be egongo da eta urtero lez, herrian jai giroa ipiniko dabe elektrotxarangeak, erromeriak eta txosneak.

Dorsalak bezperan eta lasterketa aurretik bananduko dira.

FUTBOLA

Garaipen garrantzitsua lortu eban gizonezkoen Arratia A taldeak Urbietan

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak ez ezik atzen aste bietan ez da ligarik jokatu eta joan dan astegienean barriro bueltau da futbola. Gizonezkoen Arratia Ak garaipen garrantzitsua lortu eban etxean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak hilaren 13an jokatu eban Igorren Galdakao A taldearen kontra eta 2-0 irabazi eban partidua. 27 partiduren ostean 29 puntu ditu Arratiak eta hamalagarren dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Balmaseda A taldearen kontra, hilaren 20an, arrastiko 17:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak be 13an jokatu eban etxetik kanpo La Merced A taldearen kontra eta husna bardindu eban. 27 jardunaldiren ostean 33 puntu ditu Arratia Bk eta hamargarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau Begoña A taldearen kontra,

hilaren 20an, arrastiko 18:30ean.

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 13an jokatu eban Urbietan UD Logroñes taldearen kontra eta 0-2 galdu eban etxeko taldeak. 26 jardunaldiren ostean 43 puntu ditu Arratia Ak eta seigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Tolsa taldearen kontra, hilaren 20an, arrastiko 15:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak hilaren 14ko eguerdian jokatu eban Urbietan Orduñaren kontra eta 7-1



irabazi eban etxeko taldeak, hiru jardunaldi eroiazan irabazi barik. 25 jardunaldiren ostean 42 puntu ditu Arratia Ak eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau Ariz taldearen kontra, hilaren 20an, arrastiko 16:00etan.

Inskripzio epea zabalik dauka Arratia futbol taldeak 2024-2025 denporaldirako. Informazio gehiago 688 777 117 eta 94 631 57 04 telefonoetan edo cdarratia@cdarratia.com helbide elektronikora idatzita lortu daiteke.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik zapatu arrastian jokatu eban derbia etxetik kanpo Amorebieta B liderraren kontra eta bina bardindu eban. 27 jardunaldiren ostean 41 puntu ditu Lemoako taldeak eta zazpigarren postuan dago. Datorren partidua etxean jokatu dau Artibai taldearen kontra, hilaren 20an, arrastiko 17:00etan.

MENDIA

Bigarren egin dau Onditz Iturbek Espainiako Mendi Lasterketetako Txapelketan

Erredakzioa

Bertikalean zein modalidade klasikoan, bietan egin eban bigarren Onditz Iturbek Oihana Kortazarren atzetik. Txapelketea Avilan jokatu zan aprilaren 13 eta 14an.

Kilometro bertikala jokatu zan lehenengo. Probeak 7,5 kilometroko ibilbidea eukan eta laster-

ketariak kilometro bateko desnibela gainditu behar eban Peña Caballerako tontorrera heltzeako, asfaltoan 600 metro egin eta ostean, bide estuetatik igonda. Kortazar hasieran ipini zan aurrean eta minutu bat eta hamalau segundo atera eutsazan Igorrekoari. Bel Calerok osotu eban podiuma.

Hurrengo eguneko lasterketeak

16 km-ko ibilbidea eta 840 metroko desnibela euki eban. Honean be iges egin eban Elgetakoak, baina igoeraren atzenengo herenean, Iturbek harrapatu eta atzean itxi eban, oingo honetan urrea lortu guran. Baina bajaturan, barriro hartu eutsan aurea Kortazarrek. Ikram Rhasrallak osotu eban podiuma.



IPUINAK

Dorleta Kortazar ipuin kontalaria Diman eta Lemoan

Erredakzinoa

Dorleta Kortazar ipuin kontalaria Diman egongo da umeentzako ipuinak kontetan apirilaren 19an, 18:00etan, Abaroa lokalean eta hurrengo astean, hilaren 24an, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean helduentzako ipuin kontaketea egingo dau.

Titi ta Lolo alkarte, Liburutegia eta Udalak alkarlanean osotutako Bariku txiki, umeen aisialdian arte eszenikoak sartzeko ekimenaren programazioaren barruan dator kontalari gipuzkoarra Dimara. Hori dala-ta, hilean umeentzako ikuskizunen bat eskaintzen dabe Abaroa lokalean. Aprilean, ipuin-kontaketea izango da.

Ume eta helduentzako kontaketeak ditu Kortazarrek. "Berbak dira nire lanerako tresna eta horregaitik zaintzean dodaz tentuz. Ipuin tradizionalak, nik sortuak eta egile barrienak kontetan dodaz, helduentzat, haurrentzat eta nerabeentzat" dino bere webgunean.

Helduentzako kontaketea Lemoan

Hurrengo astean, Lemoan izango da Kortazar. Izan be, hilaren 24an, 18:00etan, 16 urtetik gorako gazte eta helduentzako *Ispiluak* ipuin kontaketea eskainiko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Ispiluak kontakizuna, espiluan euren buruari begiratu eta beste aldera kurutzatzeko ausardia izan daben andren istorioek osotuten dabe. Guzurra, bortxa, mesfidantzea eta bildurra gaintuz, estutzen dituen loturetatik askatu eta zigorrak zigor, basoan aurrera egitea ebatzi dabenak.



ZINEKLUBA

Billy Wilderren *El apartamento* filma dakar Igorreko Zineklubak

Erredakzinoa

Apirilaren 18an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan, Billy Wilder zuzendariaren klasiko bat, *El apartamento* (1960), ikusteko edo berrikusteko aukerea izango dabe zinezaleek. Jack Lemmon, Shirley MacLaine eta Fred MacMurray izan ziran film honetako aktore nagusiak.

Billy Wilder Hollywoodeko urrezko sasoiko zuzendari onenarikotzat jotzen da eta *El apartamento* legez, klasiko bihurtu diran film asko egin ebazan; *Irma La Douce*, *Sabrina* eta *Sunset Boulevard*, tartean.



Sinopsia

C. C. Baxter, Manhattango aseguru-etxe bateko langile apala baina anbizino handikoa da. Ezkonbakoa da eta apartamentu diskretu baten bizi da. Apartamentua laneko nagusiei ixten deutse lantzean behin amodio hitzorduetarako. Mesede horrek enpresan daukan posizioa hobetuteko balioko deusien itxaropena dauka. Baina egoerea aldatu egiten da igongailuzain batez maiteminduten danean; izan be, apartamentua erabilten daben nagusietako baten maitalea da.

IRAKURKETE

Miren Agur Meabe Igorren egongo da



Erredakzinoa

Apirilaren 22an, 18:00etan, Igorreko Kultur Etxeko Literatura Txokoa Miren Agur Meabe egongo da *Itzulerak* liburuak irakurleakaz komentetako. Sarrera libre da, liburuak egileagaz komentau gura dauan edonorentzat.

Miren Agur Meabe Plaza (Lekeitio, 1962) euskal idazle handienetakoa da. Poesia, narrazioa, haur eta gazte literatura, itzulpenak... genero ugari landu ditu Meabek, errekonozimendu handia jasoz. 2001ean, Espainiako Kritikaren saria jaso eban *Azalaren kodea* poema liburuagaitik. 2011n, Espainiako Kritikaren saria *Bitsa eskuetan* liburuagaitik eta 2021ean, Espainiako Poesia saria *Nola gorde errauntsak kolkoan* lanagaitik.

2006tik euskaltzain urgazle, Euskaltzaindiak euskaltzain oso izentau eban 2022an.

Bere atzen liburuak, *Itzulerak* (2023), 1569ko Estefana gaztearen eta 450 urte geroagoko familia baten istorioak kontetan ditu.

POESIA

Amaia Egidazuk eta Saroa Bikandik umeentzako poesia emonaldia eskainiko dabe Bedian

Erredakzinoa

Hilaren 26an, 17:30ean, Bediako Liburutegian, *Poltsikorako poemak* umeei bideratutako poesia eskainiko dabe Amaia Egidazu eta Saroa Bikandi poesia kontalariak.

Emonaldia, ahotsagaz, gortzagaz eta irudiakaz lagundutakoa da. Egidazuk eta Bikandik sortutako poema ilustrauak jasoten dituan bildumatxoa erabiliko dabe horretarako, oinarri moduan, umeakaz erritmoa, errimea, hizkuntzea eta ahokotasuna landuteko. Kontakizunak



istorio dibertigarriak eta sorpresak gordetzen ditu. Umeek isto-

ERAKUSKETE

Arantzarteren erakusketea egongo da ikusgai Igorren

Erredakzinoa

Arantzarte Dantza Taldeak 50 urte beteko dauz. Mende erdi jantza, musika zein folklorea bizi eta munduan zehar erakusten. Urte horreetako ibilbidea batuten dauan erakusketea egingo dabe Igorreko Kultur Etxean. Bertan erropak, jantzetako osogarriak, argazkiak eta bidaietan jaso dabezan opariak bilduko dabez. Erakusketea ikusgai egongo da apirilaren 22tik maiatzaren 8ra, ohiko ordutegian 09:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:45era. Horrezaz gainera, maiatzaren 24-26ko astegienean urteurreneko ospakizun jaia egingo dabe.



rio txiki bakotxa entzun, ikusi eta ikututeko aukerea eukiko dabe.

KONTZERTUA

A&H rock bikotearen kontzertua Areatzan

Erredakzioa

Aprilaren 20an, 20:00etan, Igo-rreko Iñaki Akesolok (gitarra) eta Dimako David Ibarra "Houston"ek (ahotsa), A&H taldeak kontzertua eskainiko dau Areatzako The Quiet Corner tabernan. Bertan, *Lubakiak* rock operako piezak joko dabez.

Hamar urte inguruko lanaren ostean, igaz, 2023an kaleratu eban talde arratiarrak, 13 abesti jasoten dauzan *Lubakiak* diskoa. Abestiotan, XX. mendeko atzen hiru hamarkadetako Euskal Herria erakusten da eta hedabideen poderearen inguruko hausnar-keta bat egiten da, besteak beste. Kanten hitzak Houstonek sortu-

takoak dira eta musikea taldekide bien artean.


A&H

Akesolo eta Houston 1991 urte-tik dabiz alkarlanean. Urte haren-tan The Impresentables taldean ibili ziran. Talde honegaz disko bi kaleratu eta gero, beste talde bat sortu eben, Harrobi. Harrobi taldeagaz, *Moai* diskoa atera eben 2005ean, eta *Harrobian Indusi* izenekoa 2009an. 2018an, Houston Pub taldeagaz, rock klasikoan bersinoez osotutako diskoa kaleratu eben. Azkenik, bikote moduan, A&H, *Lubakiak* rock opera bat kaleratu dabe, euren lan guztietan legez, betiko rock musikan oinarritutakoa.



BAKARRIZKETE

Jon Plazaolaren *Tu-Tum, Platz!* umorezko bakarrizketea egongo da ikusgai Lemoako Kultur Etxean



Erredakzioa

Aprilaren 20an izango da emonaldia, 20:00etan, Kotxepin Kultur Etxean. Txalo Produksioak-en lan hau 2023an estranau zan.

Jon Plazaola aktore eta umoregile urretxuarra "bere sorlekura, bere sehaskara itzuli da *Tu-Tum, Platz!* umorezko ikuskizun barriagaz. Taula gainean bere lehen agerraldia egin ebanetik 23 urte pasau dira eta barrero be *stand up* formatuko bakarrizketeari heldu deutso; hori bai, 23 urte zaharrago, 23 urte jakintsuago eta 23 urte kabroiago. Ordubete izango dogu jakiteko ardao ona legez urteen podesuz hobera egin dauan ala ardao txarra legez ozpindu egin dan" azalduten dau sinopsiak.

ANTZEZLANA

Lan munduaren gaineko komedia garratza taularatuko dabe Igorreko Lasarte Aretan



Erredakzioa

David Desola idazle katalanuiarraren *Almazanean* lan munduaren gaineko komedia garratza ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretan, aprilaren 20an, 20:00etan.

Begoña Bilbao Lejarzegiren zuzendaritzapean, Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza ezagunek egiten ditue aktore lanak.

Almazanean antzezlanak, lan munduan sufriduten dan esplotazi-noaz eta kapitalismoaz egiten dau berba. "Jubilazioa hartzeako dagoan arduraduna (Iker Galartza) eta bere lanpostuan ordezkatu dauanak (Zuhaitz Gurrutxaga), ezinbestean, bost egunez lanlekua partekatuko dabe, itxuraz ezer gertatzen ez dan almazen huts baten. Erlojuaren tik-tak okerra, ezezagun biren arteko isilune deserosoa, esperoan egotearen amorrazinoa, personaia biren arteko gatazka eta guzur handi baten zama", sinopsiaren arabera.

DUNBA

Txapela buruan eta ibili munduan

Zeberioako eskolako LH6. mailako ikasleak

Hainbat euskal herritarrek gure mugetatik urten, eta egin eben lana aztertu ondoren, Txapela buruan eta ibili munduan lelopean egindako inauteri jaialdia aprobetxau genduan antzeppen desbardin bidez euskal herritar munduan zehar bizi izandakoak eta egindakoak kontetako. Bitartean, gelan, Juan Cruz Igerabideren *Ilargiaren xuxurla* izeneko liburuak migratzaileen gaiarenganako interesa biztu euskun eta honek gure mugez kanpo migratzaileak lan egiten daben hainbat euskal erakunde ezetutera eroan ginduzan, SMH Aita Mari besteak beste. Eurekaz

kontaktuan ipini eta gure eskolara etorteko prest agertu ziran egiten daben lana azaldu, eta eurekaz berbaldi bat egiteko.

Martiaren 14an, Amaia Iguaran eta Iñigo Mijangos izan genduzan gurean, eta euren ahotan Mediterranean migratzaileek bizi daben egoerea eta egiten daben lana azaldu euskuen. Egun, migratzaile mobimentua bizi dogula, gehienetan pobrezia edota egoera sozialak behartuta. Andrek jasaten daben gehigarria be azaldu euskuen. Lan mardul hau aurrera erroteko bolondres lanak daukan garrantziak jaubetu ginan, eta zelango eragozpenak bizi dituen euren lana aurrera erroteko lege eta erakunde aldetik. Atzen urteotan egoerea okerrera



Zeberioako ikasleak Aita Marikoakaz.

doala be adierazo euskuen.

Berbaldiaren ondorengoak hausnarketa sakona egitera eroan gaitu: migratzailearen zer-

gaitiak ulertuz, zenbat zoritar sufridu behar dituen jakinez, zenbaten ametsak geratzen diran bidean oharu arazoz... Ezin

ahaztu euskal herritarrek be atzerian izanak garala bizi barri baten esperantzan, eta danok dogula gure ametsak biziteko lurralde duin baten bizitza barria eregiteko eskubidea.



AGENDEA

APRILAK 17
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Upo Galapan mendi lasterketea. Izen-emotea zabalik <https://upogalapan.blogspot.com/> helbidean hilaren 28ra arte. 8 euro, bazkideek 6 euro.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Apirilaren 21era arte, Memeka euskerazko meme lehiaketarako memeak aurkeztu daitezke *memeka.eus* plataforman. 200 eta 150 euroko sariak dagoz.

Abuztuaren 31ra arte, Gorbeia Nire txoko kuttuna Argazki Lehiaketea. Argazkiak Instagramera igoz #MiRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi hastag-akaz.

Arratia futbol taldeak 2024-2025 denporaldirako izen-emote epea zabalik bagilaren 3ra arte. Informazio gehiago 688 777 117 eta 94 631 57 04 telefonoetan edo cdarratia@cdarratia.com helbide elektronikora idatzita.

ARTEA

18:00etan, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Contra la banalización del feminismo* Maria Gorosarriren liburuaren lanketa saioa egileagaz. Kultur Etxean.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hile osoan, Bediako liburutegian, mailegu bat egitean, fitxa bat emongo da irakurleak beteteko. Bertan, liburuaren sinopsi laburra eta zergaitik ezin dozun galdu azalduko da. Kanpaina amaitu ostean, txartelak eta liburuak erakusketa baten ipiniko dira.

16:30etik 19:30era, maiatzaren 11n egingo dan Arantzazuko Artzain Eskolara txangorako izen-emotea liburutegian hilaren 26ra arte.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Bagilean jokatuko dan Urbihools Koparako izen-emotea zabalik. 16 urte baino gehiago euki behar dira eta taldea 7 lagunez osotua egon behar da gitxienez. 5 euro ordaindu behar dira personako. Izena emoteko mezu bat bialdu behar da Instagram-eko @urbihools kontura.

18:00etan, kakorratz tailerra Kiñu Gaztetxean.

Hilaren 25era arte, Kiñu Gaztetxeko X. urteurrenako bazkarirako txartelak erosi daitezke Axular Herriko Tabernan 8 euroan.

Hilaren 28ra arte, Zaztaparrak-ek, garagarrilaren 8tik 11ra antolatutako Gazte udalekuetarako (14-16 urte) izen-emotea 688 898 765 telefonoan.

Hilaren 28ra arte, Zaztaparrak-ek, garagarrilaren 3tik 5era Udaleku ibiltarirako (6. maila-DBH 2) izen-emotea 688 898 765 telefonoan.

LEMOA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik Kultur Etxean.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

Hilaren 19ra arte, Belaunaldien arteko eguneko (hilak 27) bazkarirako txartelak erosi daitezke jubiladuetan eta gaztetxean.

19:00etan, EAJ-PNVren hauteskunde kanpainearen barruan, gazteakaz topaketak Kulturgunean Maialen Olabegaz.

UBIDE

Maiatzaren 11n izango dan Ubidestroi Trail mendi lasterketan parte hartzeako izen-emotea zabalik kronoak.com helbidean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

APRILAK 18
AREATZA

18:30etan, EH Bilduren hauteskunde kanpainako ekitaldia Gudarien plazan. Hizlaria: Naiara Fernandez. Asier Garciak gidatuta.

09:30etan, Uparan Areatzako Jubilatua

Eneko Bidegain Arteako
Irakurleen Txokoa egongo da

Apirilaren 26an, 19:00etan, Arteako Irakurleen Txokoa Bidegainen *Bichta Éder* eleberria landuko dabe, egileagaz batera.

Thriller politiko honetan Bidegainek gaur egungo gizartearen kontraesanak azaleratzen ditu: itxurakeria, hartu-emon sentimentalen zailtasuna, militantziaren ereduak, kazetaritzaren askatasun faltea, eta euskerea, besteak beste. Izenburuaren ortografiagaz Ipar Euskal Herriaren euskerearen inguruko jarkerea eta erabilera adierazo gura da.

Eneko Bidegainen *Bichta Éder* eta Karmele Jaioren *Maitasun kapitula* dira 2023ko 111 Akademiaren Sariko finalistak. Apirilaren 28ra bitartean aukeratu behar dabe akademiakideek sariduna.

eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta, Donostiara txangoa.

IGORRE

18:00etan, Caritas Arratiak antolatuta, *Laudate Deum* ekologia integralari buruzko Alicia Susoren berbaldia Kultur Etxean.

18:30etan, *Guggenheim Urdaibai Stop* berbaldia Axular Herriko Tabernan.

20:00etan, zinekluba, *El apartamento* (zuz.: Billy Wilder). Lasarte Aretoa.

APRILAK 19
AREATZA

19:30etan, Areatza Musik & Beer 2024ko kamisetak salgai egongo dira Kristo kalean.

DIMA

18:00etan, Bariku txiki Dorleta Kortazar ipuin kontalaria Abaroan.

19:30etan, Laburbira, euskerazko film laburrak eskolako kamanan.

IGORRE

18:30etan, Hari's Rock Schooleko ikasleen emonaldia Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

16:30etik 20:30era, *Komunikazio ez bortitza* Nerea Mendizabalegatz Kotxepin Kultur Etxean.

19:00etan, Harrikerarren XXV. urteurrenako Jake Mate 2. erronka. Zelai Errea Txapelketea; 22:30etan, sari banaketea; 23:00etan, DJ Plast Ft. eta Pantxeta Karabie Gaztetxean.

APRILAK 20
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Areatzan dagoan ardi ustiapen eta Txonde gaztaitegira bisitea, Antxon Iturriaga artzainaren eskutik. Izena aurretik emon gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

20:00etan, A & H taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

DIMA

08:00retan, Zamakola alkarteak antolatutako Ubidetik Oketara ibilaldia. Zamakola alkartean.

IGORRE

Kiñu Gaztetxeko X. urteurrena. Urban Festa. Potekumeak graffiti taldeak murala.

20:00etan, antzerkia, David Desolaren *Almazanean*. Zuzendaria: Begoña Bilbao Lejarzegi. Aktoreak: Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza. Lasarte Aretoa.

LEMOA

20:00etan, *Tu-Tum, Platz!* Jon Plazaolaren umorezko bakarriketea Kotxepin Kultur Etxean.

10:00etatik 13:00etara, 5 eta 16 urte bitartekoentzat Eskalada Eguna rokodromoan eta frontoi inguruan. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

ZEBERIO

Zeberio Harana Mendi Martxea.

07:00retan, martxa luzea (43 km), 09:00etan, martxa ertaina (25 km) eta 10:00etan martxa laburra (15 km) Zubialdetik.

APRILAK 21
ARTEA

13:30etan, Intxixu taldearen kontzertua Herriko Bentan.

IGORRE

18:00etan, *Mertxan tuning* merchandising tailerra Kiñu Gaztetxean.

APRILAK 22
BEDIA

16:30etik 19:30era, maiatzaren 3ra arte, maiatzaren 18an izango dan Urduñako Museo Etnografikorako txangorako izen-emotea liburutegian.

17:30etan, Liburuaren Eguna, liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalegatz liburutegian.

IGORRE

Maiatzaren 8ra arte, Arantzarte jantza taldearen gaineko erakusketea. 50. urteurrena. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

18:00etan, Miren Agur Meabe Igorreko Kultur Etxeko Literatura Txokoa. *Itzulerak* liburuaren gainean.

APRILAK 23
ARTEA

19:00etan, Orri-Markatzaile Lehiaketaren sari banaketea Kultur Etxean.

APRILAK 24
ARTEA

Jubiladuen alkarteak antolatutako urtekerea Oñatiko Arantzazura.

BEDIA

17:30etan, Maite Gonzalezen *Joven y plena. Guia de 7 herramientas para recuperar la vitalidad* liburuaren aurkezpena liburutegian.

IGORRE

18:30etan, 4 urte artekoentzat eta 19:15etan, 5 urtetik gorakoentzako Ameli eta Xirrikituen jostunen *Kontu kontaketa* ipuin kontaketea Udal Liburutegian.

19:30etan, Altxa Burua Arratia eta AUMK antolatuta, Leire Erkoreka psikiatrearen berbaldia smartphone eta nerabeen osasun mentalaren arteko erlazinoaren inguruan eta Kurtziaga ikastolako guraso alkartearen esperientzia. Kultur Etxean.

LEMOA

18:00etan, *Ispiluak* Dorleta Kortazarren gazte eta helduentzako ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:30etan, Asisko Urmenetaren *Gora euskal herriertsak* liburuaren aurkezpena eta berbaldia Kultur Etxean.

APRILAK 25
ARTEA

17:00etan, eskolako guraso alkarteak antolatutako tailerra *Alfabetatze mediatikoa eta informazionala, bulo desinformazio eta gorroto diskurtsoei aurre*

egiteko. Eskolan.

18:00etan, *Hizkuntza indigenetan etorkizunera* mahai-ingurua. El Salvador-Euskal Herria/Nawat-Euskera. Herriko Bentan.

ZEANURI

19:30etan, Gorka Mola Landinen *La apostasia de las putas* liburuaren aurkezpena Kultur Etxeko aretoan.

APRILAK 26
BEDIA

17:30etan, Amaia Egidazu eta Saroa Bikandiren *Poltsikorako poemak* umeentzako poesia emonaldia liburutegian.

DIMA

18:00etan, Andraizeak antolatuta, Burbuilak taldearen kontzertua Abaroan.

IGORRE

20:00etan, Laburbira euskerazko film laburrak Kultur Etxean.

LEMOA

16:30etik 20:30era, *Komunikazio ez bortitza* Nerea Mendizabalegatz Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:30etan, *Odola kantari. Euskal kantagintzaren tragepedia* Unai Elorriaga eta Josu Aurrekoetxearen errezitaldi musikatua Kultur Etxeko aretoan.

APRILAK 27
ARANTZAZU

Arginatx Mendi Elkartearen astegoieneko urtekerea Orhi mendira.

DIMA

10:00etan, Ganadu, artisauro eta bertako produktuen azokea plazan.

IGORRE

Kiñu Gaztetxeko X. urteurrena. 10:10etan, gosaria; 11:10etan, Olinpiaden amaiera; 13:10etan, marianito-pintxadea; 15:10etan, bazkaria; 18:10etan, manifestazioa eta ostean poteo musikatua Matxinada taldearen eskutik; 21:10etan, kontzertuak: Ezpalak, Katu, Itzek eta Ibis Templum taldeak. Gaztetxean.

17:00etan eta 19:00etan, (saio bi) Arratiako Musika Eskolako *Yellow Submarine* ipuin musikala. Lasarte Aretoa.

LEMOA

Belaunaldien arteko eguna. 12:00etan, jantzak Durundi Barri jantza taldearen eskutik; 12:30etan, poteoa eskoletan hasita; 14:30etan, bazkaria eta bingoa; 18:00etan, txokolatea eta erromeria.

APRILAK 28
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatutako mendi ibilbidea: Pagomakurre-Aldape-Zastegi. Zailtasun: ertaina. Izena aurretik emon gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Museoaren zaindaria*; 19:30etan, *Negu hurbilak* Lasarte Aretoa.

ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak antolatuta, 100 urte 100 mendi: Lekanda.



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagozan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkeru prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

ELONDO EGURRA SALGAI

Elondo egurra saltzean da. 40 metro karratu. Neurriak: 1,50 metro luzeera, 7 cm zabalera eta 1,07 cm lodiera. Prezioa: 20 euro metro karratua. Interesdunek 630 363 971 telefonora deitu.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure

barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontaktua: 672 873 452 (Nerea).

LANA

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTZEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako umeei ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz, martitzen, eguen edo bariku arrastietan. Umeak jagoteko be prest nago egun horreetan. Interesdunek deitu 650 842 292 telefonora.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Almazanean antzezlanerako.

Jose Felix Perez (Igorre)
Argi Etxezarraga (Areatza)



2 Lemoako Kultur Etxeak emondako bina sarrera Tu-Tum, Platz! bakarrizketarako.

Juan Manuel Etxebarria (Galdakao)
Ainhoa Rodriguez (Dima)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



